

**Kaixo lagun!**

Aurten, otsailaren 19an, ostirala, **II. HEZKUNTZA JARDUNALDIAK** antolatuko ditu **Deustualdeko Hezkuntza Sareak** 17:30etan Bidarte auzo etxean. Bertan egongo diren lau tailerretariko batean izena eman dezakezue otsailaren 17-a baino lehen, behean dagoen fitxa betez eta hezkuntasarea@gmail.com helbidera bidaliz. Hauexek dira aurten proposatzen dizkizuegun tailerrak eta jarraian bakoitzean landuko denaren gaineko informazio zehatzagoa aurkezten dizuegu.

Zuen gustokoa izango delakoan, animatu eta parte hartu!

# DEUSTUKO HEZKUNTZA SAREA

## *Deustuko II Hezkuntza jardunaldiak*

Otsailak 19 Ostirala  
17:30-20:30 Bidarteko auzoetxean

### *4 Tailer aukeratzeko*

- 1- DEUSTUKO HISTORIA ETA GEOGRAFIARA HURBILDU NAHI?  
(Borja Sarrionandia-Ibarra eta Pedro Zuberogoitia)
- 2- ZEIN EKARPEN EGITEN DIO ARTE-HIZKUNTZAK GURE GARAPENARI?  
(Leire Saez)
- 3- HAURRAREN AUTONOMIARAKO BIDEA: NONDIK HASI?  
(Hegoa Ugalde eta Irati Ugalde)
- 4- ZER EGIN DEZAKEGU IKASLEOK INDARKERI SEXISTARI AURRE EGITEKO?  
(Garazi Perea eta Aritz Lili)

### *Izena emateko*

[hezkuntasarea@gmail.com](mailto:hezkuntasarea@gmail.com) emailera idatzi.

Izena emateko azkenengo eguna otsailaren 17a izango da.

Haurrentzako gunea egongo da

*Animatu eta parte hartu !!*

## **1- DEUSTUKO HISTORIA ETA GEOGRAFIARA HURBILDU NAHI? (Borja Sarrionandia-Ibarra eta Pedro Zuberogoitia)**

*Tailer honen helburua honako hau da: Deustuko historian (bereziki azken mendekoan) eta geografian apur bat sakontzea. Egun dakigunetik abiatuko gara ezagutza hori guztion artean zabalduz eta finkatuz. Horretarako bideoak, azalpenak, argazkiak eta beste zenbait bitarteko erabiliko ditugu.*

## **2- ZEIN EKARPEN EGITEN DIO ARTE-HIZKUNTZAK GURE GARAPENARI? (Leire Saez)**

*Egungo jendartean irudien bidezko komunikazioak gero eta garrantzi handiagoa du. "Artea"ren kontzeptu tradizionala eta itxia gaintu eta egungo "kultura bisuala" interpretatzeak, kritikatzek eta ekoizteak gure garapenari egiten dion ekarpenaz hausnartuko dugu.*

## **3- HAURRAREN AUTONOMIARAKO BIDEA: NONDIK HASI? (Hegoa Ugalde eta Irati Ugalde)**

*Tailer honen bitartez haurrak jaio berriak direnetik bere bizitzaren subjektu aktibo izan daitezkeela ikusiko dugu 0-3 urte etapan zentratuz. Zeintzuk dira autonomiaren ardatzak eta oztopoak? Zein izan daiteke helduaren papera? Espazioa eta materialak autonomian eragina dauka? Nola baldintzatzen dute zaintzek bide honetan?*

## **4- ZER EGIN DEZAKEGU IKASLEOK INDARKERI SEXISTARI AURRE EGITEKO? (Garazi Perea eta Aritz Lili)**

*Tailer honen bidez gure institutu zein unibertsitateetan ematen diren jarrera eta egoera sexistak identifikatzeaz gain, hauei aurre egiteko estrategiak sortuko ditugu.*

-----IZEN EMATE FITXA-----

|                              |  |
|------------------------------|--|
| Izen abizenak                |  |
| Tailerra                     |  |
| Irakaslea? Ikaslea? Gurasoa? |  |
| Umekin joango zara? Zenbat?  |  |
| Helbide elektronikoa         |  |